

**LAPURDI - BAIONAKO
ELIZBARRUTIAREN HISTORIAZ**

1.) Apezpiku-hiria eta elizbarrutiaren histori uneak

Lapurdi-Baionako apezpiku-hiria Euskal Herriko eztabaidatuena da; batez ere haren jatorria eta XIX. mendetik honakoa. Apezpiku-hiriaren izena bera ere (Lapurdi-Gaskonia-Baiona), denboraren joan-etorrian, aidatu egiten da, konnotazio bereziak eta antzinakoak jasoz; adibidez, Gaskoniako apezpiku-titulua, geroago adieraziko dugunez.

aa. Lan historiografikoak

Egoera honek Baionako apezpiku-hiriari buruz egindako lanak ugaritzea ekarri du ondorioztat. Ugarienak apezpikutegiaren jatorriaz eta beronen episkopologioaz egindakoak dira.

Lehenengo, «orokorrak» dei genitzakeen historiak aipatu behar ditugu, zorrozki hartuz gero, horrelakorik ez dagoela jakin arren.

Lehenago, euskal Elizaren historiai buruz hitz egin genuenean, P.Charriton-ek 1946.ean argitaratutako *Petite histotre religieuse du Pays Basque* laburpen txikia aipatzen genuen, eta batez ere 1982.ean R.Moreau-k idatzitako *L'ame basque. Esquisse historique*; Baionako elizbarrutiaren historia osoagoa hau, dibulgaziozkoa izan arren. Azken aldi honetan, 1986.ean, I.Estornés Zubizarretak

Baionako elizbarrutiaren historiaren laburpen txiki-txikia argitaratu du .

Baionako elizbarrutiaren historiaren arlo handi bat aztertzen duten beste lan batzuren artean, honako hauek aipa genitzake: B.Campaigne 1663.ean, Denys de Ste.Marthe 1716.ean; XIX. mendean honako hauek:

L.Laborde, P.Haristoy, J.Balásque, H.Poydenot, J.-Fr.Bladé, J.Jauregain; XX. mendean Veillet-en lana aipatu behar, askoz ere lehenago idatzia baina V.Dubarat-ek eta J.-B.Daranatz-ek hiru liburukitan 1910.ean, 1924.ean, eta 1929.ean argitaratua; A. Degert-en lan laburrak edo artikulak, P.Narbaitz-enak; A. Houtin-en lana edo eta elizbarrutiaren historia ere sartzen duten lan orokorragoak.

Beste lan batzuk gai konkretu, berezi eta mugatuak aztertzeraz datoz, Baionako elizbarrutiaren jatorria bereziki. Esaterako, H.Poydenot-en lanak, J.Jauregain-enak, V.Dubarat-enak eta F.Lot-enak. Arsius-en dokumentu ospetsuaren auziaz zerikusia duten lanak ere badira; baita elizbarrutiaren jatorriaz eta lehen mendeaz egindako lan orokorrak ere; Gaskoniako apezpikutezagiaz egindako lanak ere sail honetakoak dira.

Baionako apezpikutegiaren jatorriaz ari garenean, santu batzuri buruzko bibliografia oso kontutan izatekoa da; esate baterako, lehenago aipatu dugun San Amandorena edo San Leonena.

Gai berezi batzuri buruz egindako beste lan batzuk edo garai zehatz batzuetakoak ere aipatzea merezi dute; adibidez, XII. eta XIV. mendeetako agiriei buruz egindako hiru idazlan labur, eta batez ere V.Dubarat-ek eta J.-B.Daranatz-ek argitaratutako gotzaindegiaren eta Orreagaren arteko auzia.

XVI. mendeari dagokionez, honako ikerketa hauek ditugu: hamarrenei buruzkoa, agiri batzuri buruzkoa, apezpikuaren nortasuna elizbarrutian aztertzen duena, eta batez ere Baionak Gipuzkoa eta Nafarroako herri eta haran batzuren gain zuen eskumena aztertzen duena.

XVIII. mendera etorri, elizbarrutiaren egoera eta batez ere elizbarrutia Iraultzaren aurrean, eta parroki barruti edo zirkunskripzioak aztertzen dituzten lanak ditugu.

XIX. mendeko lanen artean, A. Dupuy-k egindako lana dugu; honek, XIX. mendean apezpikuek Baionara egindako *ad limina ikustaldiak* oinarritzat hartuz, elizbarrutiaren erlijio-egoera aztertzen du; J.-B. Daranatz-ek Baionako elizaz eta XIX. mendetik XX.era bitarteko zenbait erlijio-gai jorratuz burututako lanak ere aipatu behar; P. Tauzia-ren lanak ere hor daude eta azkenez XX. mendeari dagozkion lanak.

Horrez gainera beste lan batzu ere badaude, geroago aipatuko ditudan apezpikuei buruzko monografiak eta episkopologioak batez ere.

bb. **Elizbarrutiaren sorrera**

Elizbarrutiaren sorrerarena, ilunpean dagoen gaia izanik, historilari asko aritu dira auzi historiko hori argitu nahirik. Batzutan eztabaida hau hizka-mizka latzbihurtu zen, itsu-itsuan bakoitza berean gogortuz. Horrela, eztabaidaren beroaldiak eraginik, lan ugari sortu da gai honen inguruan.

Orain historilarien eritziak adieraziko ditut labureta kronologiaren arabera, geroago batzuen eta besteen argudioak eta ihardespak agertuz. Hemen agertzen ditudan eritziak, Baionako elizbarrutiaren historiografian ospetsuenak, sonatuenak izango dira.

A. **Historilarien eritzi eta jarrerak**

XVII. mendean hiru historilari aipatzen ditugu: Oihenart: honek, *Notitia* izeneko lanean, elizbarrutiaren jatorria aztertzen ez badu ere, Baionako lehen apezpikua San Leon (IX. mendean) izan zela diosku.

P. Marca-k, 1640.ean, Baionako apezpikutegia Buchs hiria suntsitu ondoren sortu zela dio, Buchs-ko apezpikutegi hau

ordezkatzeko, hain zuzen ere; eta lehen apezpikua San Leon izan zela IX. mendean ere badio.

Bertrand Compaigne-k, 1663.ean, Divielle-ko dokumentuan oinarriturik (dokumentu faltsua, gero adieraziko dugunez), Iscassius dela lehen apezpikua 381. urtean uste du; eritzi honek baditu bere jarraitzaileak, hauen artean R.Veillet, Denys de Ste. Marthe-k, ordea, XVIII. mendean, ez du onartzen «Iscassius» eta S. Leon Baionako apezpiku izan zirenik eta Arsius aipatzen du lehen apezpikutzat.

Baina elizbarrutiaren jatorriaz eztabaidarik gogorrenak XIX. mendean eta XX.aren hasieran sortzen dira. Menjoulet-ek 1876.ean eta L. Laborde-k 1878.ean, Baiona lehenengo mendeez geroztik apezpiku-hiri zela baieztatzen dute eta lehen apezpiku ezaguna Iscassius izan zela IV. mendean; P.Haristoy ere eritzi bereko agertzen da 1883.ean, Divielle-ko dokumentua onartuz.

1878. urtean, *Gallia Christiana*-ren historialariari jaramonik egin gabe, H.Poydenot-ek, 381.ean gutxi gorabehera, «Iscassius» apezpiku izan zelako eritziari eusten dio, B.Compaigne-ri eta beronen Divielle-ko dokumentu faltsuari men eginez. 1897.ean Poydenot-ek 84 orrialdetako lan bat argitaratzen du *De l'antiquité de l'évêché de Bayonne* izenburuz; lan honetan, 380. urteaz geroztik, Baionan bazela apezpikutegia frogatu nahi du; era berean auzitan zeuden punturik ilunenak eztabaidatzen ditu: Arsius-en dokumentuak, Divielle-ko dokumentuak, Baiona eta Boatium gauza bera ote diren, Baiona edo Lapurdun hiria antzinatean eta abar; lan honetan behin eta berriro aipatzen du J.-F.Bladé-ren *Mémoire sur l'Evêché de Bayonne* lana.

1886.etik 1897.era bitartean artikuluetan zatika eta 1897.ean liburu gisa argitaratu zen Bladé-ren lan honek beste norabide bat markatzen du Lapurdiko elizbarrutiaren jatorriaz sortu zen auzi honetan: eritzi asko ez ditu onartzen eta beste berri batzu dakartza. Esaterako, ez du onartzen erromatarren garaian apezpiku-hiri zenik, ezta VI. mendean apezpikurik zegoenik

ere, ezta Lapurdi «civitas» gisa agertzearen argudioa ere. Haren ustez, elizbarrutia 778.ean, Akitaniako erresuma sortu zenean, sort zitekeen soilik, hau da, VIII. mendean; beraz, Arsius-en dokumentua ere ez du onartzen.

Bi mendeen arteko mugan eztabaida eta hizka-mizka hauek gori-gori jarri ziren bi historialari handiren eraginez batez ere; bi hauek J.de Jaurgain eta V.Dubarat dira; biok elkarri erantzun eta ihardesten diote, elkarren argudioak eta jarrerak argituz.

J.de Jaurgain, zentzu kritiko handiz, elizbarrutiaren antzinatasuna, hots, VI. mendekoa dela ziotenen aurka jaiki zen. Baionak, Andelot-en dokumentuaren arabera, «civitas» titulua zuenik ez du onartzen, ezta titulu horrek apezpiku-hiri izatea esan nahi duenik ere; beraz, VI. mendean apezpikua zuenik ez du onartzen; Divielle-ko dokumentua, Arsius-ena eta Pascual II.aren bulda faltsuak direlako komentzimendu osoa du.

J. de Jaurgain-en ustez, Baionako apezpikutegia 1030.ean sortuko zen gutxi gorabehera, Dax-ko elizbarrutiaren eta Irujekoaren alde batzurekin osatuz, eta bertako lehen apezpikua Raymond I.a izanik. Jaurgain-i kritika gogorra egin zioten batzuk, esaterako, Duharat-ek, Degert-ek eta abarrek.

V.Dubarat da Lapurdiko elizbarrutiari dagozkion gaiet buruz gehien idatzi duen historialaria; eta elizbarruti honen jatorriaz ere arreta handiz aritu da bere lan batzutan, horretaz dagoen bibliografia ongi ezagutuz eta auzitan ziren dokumentuei buruz jarrera pertsonala edo bere-berea hartuz, orduan zabal zeuden beste jarrera batzuren aurrean.

Dubarat-ek, 1901.ean, Baionako elizbarrutia V. mendetik VI.era bitartean sortu zela uste zuen; orretarako, Lapurdun-Baionari emandako «civitas» tituluan oinarritu zen; honen eritziz, Dax-ko elizbarrutia izandakoaz hezur-mamitu zen oso-osorik. Geroago, 1929.ean, gai horretaz zabaldutako eritzi berriagoak jasoz, elizbarrutiaren antzinatasunari tinko eutsi arren, balitekeela -dio- VI. mendearen bukaera baino lehen apezpikutegirik ez izatea Baionan, baina VII. mendetik 1030. urtera bitartean behintzat,

ziur baieztatzen du bazela (164). Erabili ziren argudio eta dokumentu batzuei eta besteei egindako kritikaz, geroago ihardungo dugu.

A. Degert, 400. urtera arte ez zela apezpikuteirik gauza ziurtat jorik, ez bait zen ezer esaten *Notitia provincialium* delakoan, eta 587.ean «civitas» gisa agertzeak apezpikua zuela esan nahi duelarik, ondorio honetara heltzen da: 400. urtetik 587.era bitartean bazela apezpikutegia Baionan edo Lapurdin; gero X. eta XI. mendeetara arte isiltasun osoa dago; ez da ezertxo ere esaten.

Augusto Longnon-ek, 1878.ean, eta Duchesne-k 1899.ean, Baionako apezpikutegia VI. mendetik VIII.era bitartean jartzen dute.

Eztabaida honetan Camille Jullian jakintsuagana jo zuten eritzi eske, eta honek 1922., 1927. eta 1928.ean idatzitako gutunetan eman zuen eritzia: Elizbarrutia antzina-antzinakoa dela dio, 587. urtean «civitas» titulua izateak ordurako apezpikua edo gotzaina zuela adierazten bait du; baina horrek ez duela esan nahi apezpikutegiak etendura izan eta XI. mendera arte batera gabe egon ez zirenik. Alabaina kritzi batzuen eta besteen alde jartzeko argudio ziurrik ez dela ere aitortzen du.

J.-B. Daranatz-ek Jullian honen eritzia onartzen du orohar.

Azken hamarkada hauetan, historialari batzuk ez dute onartzen X. edo XI. mendera arte elizbarrutirik izan zenik. Ferdinand Lot-ek, 1951.ean, antzina (VI. eta VII. mendeetan) apezpikutegirik izan zenik ukatu egiten du argi eta garbi. «Civitas» titulua ez du onartzen eta, beraz, ezta apezpikutegirik ere. Auzitan diren dokumentu batzuren benetakotasuna ukatu egiten du; XI. mendean, ordea, bazela jadanik elizbarrutia aitortzen du.

R. Cuzacq-ek, 1969.ean, elizbarrutiaren jatorriaz orrialde interesgarriak idatzi zituen: Lapurdi-Baiona «civitas» gisa agertzen dela eta, 587.az geroztik elizbarrutirik han bazela dioen eritzia inola ere onartezina dela uste du; honen eritziz, elizbarrutiaren sorrera 1050. eta 1060. urteen tartean jari behar da. Elizbarrutiaren antzinatasunaren alde erabiltzen diren argudioak aipatzen ditu,

baina argudio hauei balioa kentzen saiatzen da, berandu edo XI. mendean sortu zelako eritziaren alde jarritz.

Hala ere R. Mussot-Goulard, 1982.ean, azken bi historialari hauen eritzitik aldendu egiten da: XI. mendean bere dokumentu eta guzti elizbarrutia izateak, garai horretan sortu zenik ez duela esan nahi, dio, orduan birrezarri (errestauratu) egin zela baizik; balitekeela elizbarrutia oso antzina sortua izatea eta hori frogatzeko sei argudio ematen ditu, batzu indarrak gabeak, baina guztiak batera, orohar, nahiko sinesgarri gertatzen direnak.

B. Aldeko eta kontrako argudioak

Sail honetan argudio bakoitzaren aldekoak eta aurkakoak biltzen dira. Argi ikusiko denez, elizbarrutiaren antzinatasunaren alde daudenak eritzi hori frogatzeko argudioak aurkezten saiatzen dira; aurkakoek, ordea, euren jarrera defendatzeko argudiorik ez dute jartzen, besteek jarritakoak moteldu eta haiei balioa kentzeko ahaleginak egin baizik. Auzitan dauden argudiorik garrantzitsuenak honako hauek dira: Lapurdi edo Baionari «civitas» titulua ematea eta Arsius-en dokumentua.

1.) «Civitas» eta «ex silentio» deritzon argudioa

Hauxe da auzirik zailena. Elizbarrutiaren alde daudenek, Andelot-ko hitzarmenean, 587.ean, Lapurdiri (Baionari) emandako «civitas» titulua aipatzen dute; testu hori Tours-ko Gregorio Donearen hidez datorkigu eta garai hartan «civitas» guztiak normalki apezpiku-hiri izaten ziren; Gregorio Donearen hizkeran batez ere «civitas» esan edo apezpiku-hiri esan berdintsu zen.

Beste batzuk, ordea, eta hauen artean J. Jaurgain, F. Lot, R. Cuzacq etab. aipa genitzake, ez diote balio handirik ematen argudio horri; hala ere ez dute aurkako argudiorik agertzen; Cuzacq-ek, adibidez, Zeiller aipatuz, salbuespen bi dakartza, baina erromatarren garaikoak eta Andelot-koa merovingiarren garaikoa da; F. Lot-ek, berriz, hitzarmen horretan ageri den Lapurdun hori Dax bera izan daitekeela adierazten du.

Baina antzinatasunaren aurka daudenen argudiorik sendoena eta zentzuzkoena *Itinerarium Antonini*, *Notitia dignitatum*, *Notitia provinciarum*, *Notitia Galliarum* izeneko dokumentuetan, III. mendetik V.era bitartean, Lapurdun-en «civitas» titulurik ez aipatzea da. Eta «ex silentio» deritzon arrosoibidean aurrera joz, Erdi Aro urrunean ospatutako kontzilioetan, X. edo XI. mendera arte, ez dela Baionako apezpikuen izenik agertzen diote.

Antzinatasunaren aldekoek honela ihardesten diote benetako oztopo garrantzitsu horri. a) *Itinerarium* eta *Notitia* dokumentuen isiltasunak, gehienez ere, III. mendetik V.era bitartean Lapurdi ez zela «civitas» esan nahi du eta, beraz, ezta elizbarruti ere; baina ez du esan nahi VI. nahiz VII. mendean izan ez zenik, *Notitia Galliarum* delakoari dagokionez, VI. mendean idatzia da izan, baina aurreko mendeetan idatzitakoaren kopia gehien bat. b) larriagoa da kontzilioetako agirietaiko isiltasuna edo eta V. eta VI. mendeetako apezpikuen zerrendetan ez agertzea, Dubarat-ek ere aitortzen duenez, baina hau ere ez da azken arrazoi, ondoren ikus daitekeenez: 1. Buch-ko apezpikuak ere ez dira agertzen; beste aldetik nekez buruan sartzekoa da, Buch hain hiri txikia izanik, apezpikua izango zuenik, baina aurkikunde epigrafikoak argi eta garbi erakutsi du hazuela. 2. Oloroe, Dax, Aire, Basas eta abarretako apezpikuak ere, mende osoak igaro arte, ez dira apezpikuen zerrendetan agertzen. 3. Antzinatasunaren aldekoen eritziz, VI. mendean Baionak apezpikua izateak ez du esan nahi ondorengo mendeetan ere nahitaez apezpikua izango zuenik; gizarteko gorabehera eta arazoengatik, agian, etenaldia izan zitekeen. c) Geroago adieraziko dugunez, Lapurdiren «civitas» tituluaren lekukotasuna ematen duten beste dokumentu batzu ere aipatzen dituzte.

2.) Buch eta Lapurdi-Baiona hiri bera dela dioenik ere bada; esate baterako H. Poydenot, Dom Ruinart-en eritzian oinarrituz, uste horretakoa da. Horrela elizbarrutiaren izatea guztiz argituko litzateke. Baina eritzi hau oinarri gabea dela argi geratu da.

3.) C. Jullian-ek, apezpikutegiak, V. mendean, Gallia-ko «pagi» edo laborari-herrietan, nekazari-eskualdeetan asko ugaritu

zirela dio: hiriak administrazio aldetiko batasunari eusten zion eta haietako apezpikuen menpeko apezpikuak zeuden laborari-
eskualdeetan. Horrela, esate baterako, Arles eta La Ciotat, Garguier
Marsella-tik hurbil etab.; gauza berdintsua gerta zitekeela, dio,
Dax eta Lapurdi inguruko nekazari-herrien artean ere. Beste hau
ere oharterazten du: V. mendean nekazari-eskualdeetan
apezpikutegiak ugaritzeko ohitura horrekin batera, itsas portua
zuten hirietan apezpikutegiak sortzeko joera berezi bat ere bazela;
horrela, Toulon, Nice, Agde, Maquelongne, La Ciotat hirien izenak
aipatzen dizkigu. Horixe izan zitekeen, haren eritziz, Baionaren
kasua ere. R. Cuzacq-ek, ordea, joera hori Baionari ez dagokiola
uste du, itsas portu horiek, hain zuzen ere, Mediterraneokoak
direlako eta ez Atlantikokoak.

4.) VII. mendearen azkeneko Ravenne-ko testuak, «Lapurdu-
hiri edo «civitas» izenez agertzen digu eta, beraz, apezpikua izan
behar horren arabera. Beste aldetik, badugu hor zailtasun handi
bat, baina ez behin betikoa: Saint-Pierre de Garnon-en edo
Bordelen 675.ean ospatu zen kontzilioan ez dela Baionako
apezpikurik agertzen.

5.) Lescar-ko kartularioak, VIII. mendean, P. de Marca-ren
bidez heldu zaigun atal batetan, Lapurdi «civitas» gisa dakar,
suntsituak izan ziren 12 hirien artean, hots, Novenpopulonia-ko
12 apezpiku-hirien artean.

6.) IX. mendeko Bigorre-ko kartularioaren dokumentu batek,
honez gero galdua, baina galdu baino lehen Nicolas Bertrand-ek
kopiatua eta C. Bruges-ek argitaratua izan zenak, Lapurdi
apezpiku-hiri gisa aipatzen du; baita 1840.ean ere, Auch-i
transferitutako Eauze-ko Andre Mari aldarearen sagarapen-
agirian.

7.) Bada VII. mendetik VIII.era bitarteko beste dokumentu bat
ere, XI. mendean kopiatua eta oso interesgarria; Parisko Biblioteka
Nazionalean dagoen Saint Sever abatetxeko munduko mapa da;
Beatus espainiarrak apokalipsiari buruz egindako azalpenen
eskuskribuari dagokio: apezpiku-hiriak agertzen dira bertan;

Lapurdikoa ere argi-argi dator, baina ez hango apezpikuaren izenik. R. Cuzacq-ek argudio hau atzekoz aurrera jartzen du; hau da, Lapurdiko elizaren irudian izenik agertzen ez denez gero, 'Asturies' (?) hitza jartzen duela eta, irudiko eliza horrek Astorgako apezpikutegia esan nahiko duela, agian. Izenik ez agertzea tokirik ez dagoelako dela ihardesten dio Dubarat-ek.

8.) **Divielle monastegiko dokumentua**

Inork inoiz aurkitu ez duen ustezko dokumentu honen berri B. Compaigne-k ematen digu; aurrekoek, esaterako, Oihenart-ek, Marca-k, 1656.eko Gallia Christiana-k ez zekiten horren berririk. B. Compaigne-k *Dyptche ou Catalogue des Evêques de la Cité d'Acqz* izeneko bere lanean argitaratu zuen 1661.ean. Historialari askok, Compaigne-rengan oinarrituz, egiazkotzat eman zuten dokumentu hau eta, beraz, 381.ean gutxi gorabehera, Iscassicus zela Lapurdiko apezpiku onartzen dute. Beste batzuk, ordea, laster eman zuten faltsutzat, Dubarat-ek batez ere; honek, dokumentuaren faltsutasuna frogatuz gainera, gezurrontzi hark XVII. mendean asmatu zuela adierazten du. A. Degert-ek, *Un Faussaire Gascon Bertrand de Compaigne* izenburuz, kritika oso latza egiten dio 1907.ean.

9.) **Arsius-en dokumentua (980)**

Lehenago (f. sailean), Euskal Herriko eta inguruko kartularioei buruz hitz egiterakoan, dokumentu hau nortzuk argitaratu zuten esan dugu, baita nortzuk zuten egiazkotzat eta nortzuk gezurrezkoetat ere. Andelot-ko hitzarmenean, 587.ean, Lapurdi «civitas» gisa agertzen den dokumentuaren hurrengo, hauxe da adierazgarriena eta eztabaidatuena bere garrantziagatik. Egiazko izan nahiz faltsua izan, dokumentu honek eragin izugarria izan du Baionako elizbarrutiaren historian, Aita Santuen geroko agiriei dagokien aldetik batez ere.

Dokumentu hau onartua izateko arrazoietariko bat, 1106.eko Paskual II.aren eta 1194.eko Zelestino III.aren buldetan Arsius-en dokumentuko muga berberak etortzea da; Baina bulda hauen

benetakotasuna bera ere, Paskual II.arena bereziki, auzitan jartzen denean, gauzak zeharo korapilatzen dira. Dokumentu honetatik sortu zen elizbarrutiaren mugei buruzko eztabaida ere.

V.Dubarat, zalantza batzurekin, baina lehenengoetan onartzearen alde bazegoen ere, gerora faltsutzat jotzen du, eta dokumentua XI. mendearen azkenekoa edo XII.aren hasierakoa dela dio eta une hartako premiaren bategatik sortua; arrazoiën artean, garai hartako esaldi edó forma ezagunak erabili izana jartzen du.

Hor ageri diren pertsonak ez direla elkarrekin ongi etortzen dio Jaurgainek eta beste hau ere gaineratzen du: dokumentu hau XIII. mendean asmatu zela Gipuzkoako lurraldearen zati batez jabetu ahal izateko.

J.-F. Blade, argudio ezberdinei buruz eztabaida luzeak izan ondoren, honako ondorioetara heltzen da: dokumentua faltsua dela eta 1007.etik XI. mendearen erdia bitartean asmatua izan zela.

V.Dubarat-engan argudio gehiago ere ikus daitezke. Dokumentu honek Baionako elizbarrutiaren eskumenean Nafarroako eta Gipuzkoako zati bat ere hartzen du.

10.). **Errege eta Aita Santuen dokumentuak**

Santxo Handiaren dokumentu bat (1027.ekoa) eta Aita Santuen bulda batzu dira; Baionako elizbarrutiari eta beronen jurisdikzio-mugei buruzko dokumentu guztiz interesgarriak. Buldak Urbano II.arena (1096.ekoa), Paskual II.arenak (1100. eta 1106.ekoak) eta Zelestino III.arena (1194.ekoa). 1096.eko eta 1100.eko buldetan Iruñeko elizbarrutiaren gogoko mugak datoz; 1106.ekoan, ordea, Baionaren gogokoak. Elizbarrutien arteko mugak zirela eta sortutako eztabaidei, Zelestino III.aren buldak ematen die azkena, Oiartzungo harana Donostiara arte, Baionaren eskumenean utziz. Baina bulda hauen arteko kontraesanak aztertuz, benetakoak ziren ala ez, eztabaida latza sortu zen.

- Santxo Handiaren dokumentuak (1027.ekoa dirudienez, bestebatzuk, Sandoval-ek adibidez, 1007.eko datatz agertzen dute,

baina dokumentuak ez dakar datarik) Gipuzkoako zati bat Iruizguzeko elizbarrutiaren barnean sartzen du, esaterako, Oiartzungo harana, Hernani eta abar. Jaurgain-ek, dokumentu hau, Baionako elizbarrutia XI. mendean sortua zela frogatu nahirik aipatzen du. Baina V. Dubarat-ek, dokumentu honen originalik ez dela dio, geroko kopiak baizik. Ikerketa arretatsu baten ondoren, faltsua dela ateratzen du eta Arsius-en dokumentuaren ihardespén gisa asmatutakoa. Beste batzuk ere, geroago, ukatu egin dute haren benetakotasuna. Goñi Gaztambide-ren eritziz, dokumentu hau orijinalaren kopia izan daiteke, baina beste gauza batzu ere tartekaturik dituena; tartekaturiko horien artean, bien artean eztabaidan eta nor harrapatuko zeuden elizak izango lirateke Pérez de Urbel-en ustez.

Urbano II.aren bulda 1096.eko Ekainaren 4ekoa da eta Santxo Handiaren dokumentuan datozen mugak ematen dira ontzat, bide batez dokumentu hura aipatzen delarik; hala ere bulda honek ez ditu gauzak hain garbi esaten. A.E. Maizarić-ek, bulda honetan, tartekadurak edo interpolazioak direla uste du.

1096.eko bulda honen eta 1100.eko baiespénaren ondoren, Paskual II.aren bulda dugu, 1106.ekoa; honek Baionako elizbarrutiaren mugak finkatzen ditu, aurreko buldetan Iruñeko elizbarrutiari ezartzen zitzaizkion Gipuzkoako lurraldeak hari (Baionari) ezarririk. Honen benetakotasuna ukatu egiten du J. Jaurgain-ek, baina darabiltzan argudioek izan dute ihardespén jadanik. Beste batzuk benetakoa dela uste dute, esaterako, Bladé-k. Kontutan hartzekoa da bulda honek nolabait Arsius-en dokumentutik hartzen duela ideia edo eta, behintzat, harekin kideatasun handia duela.

- Auzitan gutxien jarri den bulda Zelestino III.arena (1194.ekoa) da. Honen benetakotasuna argi dago askorentzat, eta J. Jaurgain-ek ere onartzen du.

11.) Elizbarrutiaren birrezarketa XI. mendean?

XI. mendean elizbarruti batzuren birrezarketaz dokumentu batzu agertzen dira; esaterako, Iruñeko eta Baionako elizbarrutien

birrezarketaz; dokumentu horien arabera, Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait lurralde norentzat izango zireneko auzia zuten bi elizbarrutiok.

Santxo Handiaren hiru agiri daude (1022, 1023, 1027) Iruñeko elizbarrutiaren birrezarketari buruz; lehenengo biak faltsuak dira edo eta behintzat tartekaduraz beteak, hirugarrena fidagarriena izanik. J. Jaurgain-ek 1027.ekoa benetakotzat imeki onartuz batera, Iruñeko elizbarrutiaren birrezarketa eta Baionakoaren sorrera defendatzen du.

Ikusten denez, Santxo Handiaren dokumentuetan deskribatzen den birrezarketak asmakeria dirudi.

Baina arazorik larriena Baionako elizbarrutia birrezarri zen ala ez jakitean datza: XI. mendean birrezarria izan bazen, horrek lehendik ere bazela esan nahiko luke eta. Gaskoinian, XI. mendean, hainbat elizbarruti birrezarri edo birrantolatu zirena badakigu. R. Mussot-Goulard-ek, Gaskoinian gotzaindegien birrezarketak izan zirela dio, ondorengo toki hauek aipatuz: Dax, Leskar, Oloroe, Aire, Lapurdi-Baiona edo antzina Novenpopulanie zeritzona. Baionako elizbarrutiaren birrezarketari, Raimond apezpikuak emango zion hasiera 1059.etik 1060.era bitartean. Birrezarketa honi dagokion dokumentua 1059-1060. urteetako da.

Gaskoiniako apezpiku-hiriak edo apezpikuak

Gaskoiniako elizaren garairik ilunenetarikoa, X. eta XI. mendeetan, bere apezpiku-hirien egoera da; garai horretan agertzen da «Gaskoiniako apezpiku-hiri» edo «Episcopatus Vasconiae» titulua; egoera negargarriagatik apezpikurik gabe zeuden Gaskoiniako lehenagoko apezpiku-hiriak zeuden izen horren pean.

Gai honi buruz garai berean egindako bi lan dira aipagarrienak: 1899.ean J.F. Bladé-k *L'Evêché des Gascons* lana argitaratu zuen, eta A. Degert-ek 1900.ean idazlan sail bat *L'Evêché de Gascogne* izenburuz. Inguru bitxi hau ez da behar bezain ongi ikertua izan.

Degert-en ustez, Gaskoiniako apezpiku-hiria errealitate historikoa izan zen, eta hango apezpikutzat agertzen dira ondorengo izen hauek: Gombaudo, Arsius, Raimond I le Vieux (eta agian, Raimond II.a ere bai. Oraindik orain, R. Mussot-Goulard-ek ziurtzat jotzen du Gaskoinia gotzain-hiri izan zela eta egoera negargarri hartatik irtenik, lehendik Gaskoinian ziren gotzain-hiriak birrantolatu zirela XI. mendearen erdi alderantz.

Ondorioak

Batzuen eta besteen jarrerak aztertu eta argudioak entzun ondoren, hots, Baionako elizbarrutia oso antzinakoa dela, VI. edo VII. mendekoa dela, edo eta hori ukaturik, X. edo XI. mendean sortua dela diotenen eritziak entzunik, ondorio honetara heltzen gara: auzia ez dagoela guztiz garbi eta behin betiko erabakirik. Ez alde batekoen eta ez bestekoen esanetan ere ez dago erabateko argudio borobil eta aurkakoak aho bete haginez uzteko ainakorik.

Hala ere kontutan izan behar da antzinako gertakariak egiaztatzea, eta batez ere iragan urrun eta ilunean galtzen direnak frogatzea zailago dela, dokumentuek ez dutela ezer esaten eta besterik gabe, «ex silentio» argudioaz, ukatzea baino.

cc.Haren historiaren une garrantzitsu eta erabakiorrak

- Elizbarrutiaren jatorriaz hitz egiterakoan, haren historiaren bi une garrantzitsu eta erabakior aipatu ditugu: VI. edo VII. mendean izan zitekeen sorrera eta XI. mendean izan zitekeena. XI. eta XII. mendeaz geroztik dokumentazio ugaria dago eta bertan argi eta garbi nabari da Gaskoiniako elizaren birrantolaketa.

- Ingelesak nagusi diren garaian (XII. mendetik XIV.era bitartean), Euskal Herriarentzat hain garrantzitsua den gertakari historikoa egiaztatzen da: beila edo erromesaldiak, hauen artean ospetsuenak Santiagora egindakoak; Europako kristau guztientzat hain garrantzitsua zen beilabide honen zatirik luzeena Euskal Herritik zehar igarotzen zen. Gertakari honek kristau bizitzaren

sail ezberdinetan aztarna sakon-sakonak utzi zituen: erlijio-bizitzan eta kulturari.

- Zalaparta, gudu eta mugida kulturalen artean Protestantismoa sortu zen XVI. mendean eta hura hedatzean, erlijio katolikoak garai latzak igaro behar izan zituen Iparraldeko toki batzutan. Era berean erreforma edo berriztaketa katolikoarekin Baionako elizbarrutiak loratze joria izan zuen, XVIII. mendean batez ere.

Elizbarrutiaren lurralde-jurisdikzioari dagokionez, auzitan zeuden lurraldeak, Gipuzkoako eta Nafarroako alde batzu ziren: Felipe II.aren nazionalismo sozio-politiko-erlijiosoak nekez onarrezakeen Gipuzkoa eta Nafarroako herriak (Hondarribiko artziprestaldea, Baztan, Bortzirietan eta Leringo Donestebe), eliz legez, Baionako elizbarrutiari loturik egotea; eta eliz mugak eta herri-mugak berdinak izatea nahi zuen. Frantzia protestantismoa sortzea abagune ona izan zen parrokiak horietaz birjabetzeko; eta bertakoen eskabide batzuren ondoren, lehenengoetan behin behineko, erregeak parrokiak horiek Iruñeko elizbarrutiaren eskumenean ezartzeko eskatu zion Aita Santuari. Aita Santu Pio V.ak baietza ematen dio 1566.ean eta halaxe egiten da. Gerora, Baionak, 41 herri horien jabe berriro egiteko, auzitara eta eztabaida latzetara jo arren eta Aita Santuaren geroko agiri batzu bere alde izan arren, sekula ere ez zuen lortu baietaz birjabetzea. Horrela Baionako elizbarrutia pixka bat murriztua geratuko zen.

- Elizbarrutiaren erlijio-bizitzari dagokionez, baketzearen garaia garrantzi handikoa izan zen; Euskal Herriko kristautzat, jazarpena eta heroizitateak iraultzak zekartzen txanponaren alde bata eta bestea bezala izanik. Iraultza hori askatasunaren izenean dator etorri, baina Iparraldeari geratzen zitzaizkion askatasun-hondarrak hark kendu zizkion, alabaina ezin izan zuen beste horrenbeste egin euskaldunen kristau fedeari; areago oraindik, erlijio katolikoaren zuzperraldirako ziri edo akuilu bilakatu zen.

- Baionako elizbarrutiaren hurrengo birruntolaketak garrantzitsua Iraultzaren ondoren izan zen, 1801.eko konkordatuaz geroztik. Baionako elizbarrutia, Dax-ko

elizbarrutiaren parte batekin, Aire, Leskar, Oloroe, Tarbes eta Baiona berarekin, benetan handi bihurtzen da; hala ere, ondorengo urteetan aldaketak gertatu ziren, elizbarrutia (1822.ean), lurralde-jurisdikzioari dagokionez, orain dagoen bezalaxe gelditurik; antzinako Baionako elizbarrutia zena, Oloroe, Leskar-en zatirik handiena eta Dax-en zati bat (Amikuze eta Ostibarre).

2) Apezpikuak eta episkopologioak

- Baionako apezpikuei buruz egindako lanak ugariak dira; beraz, episkopologio oso eta zabal banaka batzu, beste mugatu batzu eta apezpikuen zerrendaren batzu soilik izan arren, hainbat apezpikuri buruzko lan monografiko ugari dugu, batzu laburrak.

- 1638.ean jadanik, A. Oihenart-ek *Nottia utriusque Vasconiae* lanean, apezpikuen zerrenda bat dakar, haizetatik lehenengoari, San Leon-i, lerro batzu eskaini ondoren, Arsius, Raymond etab. aipatuz jarraitzen du, Joan Olzo-rekin amaitzeko (1644).

- Denys de Ste. Marthe-k 1716.eko Gallia Christiana-n (1309-1.324.la) episkopologio txiki bat dakar iruzkin labur batzurekin: Arsius-ekin ematen dio hasiera (980) eta Andreas Druillet-ekin bukatu (1707). Auch-ko eliz probintziaren mapa ere badakar, honen menpeko bait zen Baionako elizbarrutia.

- Baina lehen episkopologia eta guztietarik handiena Veillet-ek idatzi zuen; Hala ere, bi mende geroago argitaratu zen, 1920.ean, V. Dubaraten eskutik, argitaratzeko honek prestatuturik eta osaturik: *Recherches sur la Ville et sur l'église de Bayonne. Manuscrit du chanoine René Veillet*, 1.lib. Veillet-en testua bi argitaratzaileen, Dubarat eta Daranatz-en, argigarritz eta oharrez hornitua izan zen. Lan honetan Divielle-ko dokumentu faltsuaren eragina nabari da; B. Compaigne-k argitaratu zuen, lehenago adierazi dugunez, eta beraz, Iscassicus onartzen du lehen apezpikutzat 381.ean, eta zerrendan hurrenez hurren hauek dakartza: San Leon 900.ean gutxi gorabehera, Gombaut (977.ean), Arsius (980.ean), Raymond (1056.ean gutxi gorabehera) etab...

R. François de Beauvau-rekin (1700-1707) zerrenda amaituz. Argitaratzaileek, André Druillet apezpikuarekin (1708) jarraituz eta Jauffret-ekin amaituz (1889-1902), zerrenda osatu egiten dute.

- Eta 1792.ean eta 1810.ean argitaratu ziren bi episkopologio labur eta arinen ondoren, 1878.ean episkopologio handietariko bat ageritu zen H. Poydenot-en eskutik, beronen idazlanen bigarren liburuki osoa hartzen duclarik: *Récits et légendes relatifs à l'histoire de Bayonne*. Veillet-ek egin zuenez, honek ere, B. Compaigne-ren eraginez, Iscassicus (381.ean) onartzen du lehen apezpikutzat; baina, ziurtzat eman gabe, Sulpicius ere tartekatzen du zerrendan eta Sedatius (840.ean gutxi gorabehera) San Leon-en aurretik (900.ean) etab.

- 1883. eta 1884. urteetan, P. Haristoy-k, bere *Recherches historiques sur le Pays Basque* lanean, apezpiku guztien zerrenda emanez gainera, bigarren liburukian Ipar Euskal Herriko pertsona aipagarrien artean, Baionako 16 apezpikuren biografia txikiak dakartza.

- Aipagarria da F.A. Jauffret-ek 1898.ean egindako Gutun Pastorala, bertan Baionako historian zehar izan diren apezpikuez hitz egiten duclarik.

- XIV. mendetik XVIII.era bitarteko apezpikuei buruzko zerrenda argitaratu zuen A. Clergeac-ek, haien argibide labur-laburrak emanez. Garrantzitsuak dira P.B. Gams-ek eta bereziki Fubel-Gulik-Gaudrat-Ritzler-Seffin historialariek egindako episkopologio handi unibertsalen dokumentu-zerrendak ere.

Garai batzu soilik hartzen dituzten episkopologioak ere badira, esaterako, X. mendeari dagokiona, Gaskoiniako apezpikuak izenekoei buruz; XIV. mendetik XV.era bitartekoetan, eta XVI.etik XIX.era bitartekoetan, azalpen edo ohar labur batzu daude soilik. XIX. mendeko apezpikuei buruz, zenbait biografia argitaratu ziren *Bulletin Catholique* delakoan, 1889.ean.

- Episkopologio orokor nahiz partzial hauetaz gainera, zenbait apezpikuri buruzko lan biografiko ugari dago; hauek ondorengo

lerroetan aurkeztuko ditut materiale bibliografiko gisa.

XII. eta XIII. mendeetakoak bi erreseina labor ditugu XVI. mendekoari dagokionez, Jean de la Barrière-ri buruzko erreseina labor-labor bat, beste bat Jean du Bellay-ri buruz, eta Jean de Monstiers-i buruzko lan batzu.

XVII. mendeko apezpikuetatik gehien aztertu dena Bertrand d'Echoux da. Claude de Rueil-i buruzko erreseina labor bat dugu; Henry de Béthune Baionako apezpiku izendatzeaz idazlan bat; Raymond de Montaigne eta Gaspard de Priellé-ri buruzko hiru idazlan labor.

XVIII. mendeko apezpikuei dagokionez, Pierre de la Vieuxville eta J.B. de la Féronnays-i buruzko erreseina laborrak ditugu; E.J. de Villevielle-ri buruz idazlan bat eta beste bi idazlan Behe Pirinioetako apezpiku konstituzionalari buruz.

XIX. mendekoetatik honako hauei buruz egindako idazlanak ezagutzen ditugu: J.J. Loison-i buruz, Astros-i buruz, Arbou-ri buruz Ducellier-i buruz eta Jauffret-i buruz. Eta XX. mendeko apezpikuei dagokionez, idazlan batzu ditugu F.M. Gieure-ri buruz, Houbat-i buruz, E. Vansteeberghe-ri buruz, L.A. Terrier-ri buruz, eta 1986.ean gertatu zen Pierre Molère-ren apezpiku-kontsakraziori buruz.

Bukatzeko, beste elizbarruti batzutako ardurak izan arren, Iparraldeko euskal apezpikuak aipa genitzake, baita Baionako katedralean ospatutako apezpiku-kontsakrazioak ere.

Julen Urkiza